



ERABAKIA, 2019ko URRIAREN 24koa, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IDAZKARI NAGUSIARENA, IRAKASLE-IKERTZAILEEN BAIMENEN PROZEDURA ALDI BATERAKO EGOITZA ELEKTRONIKOTIK IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEAREN WEB ATARIRA ALDATZEKO.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiak 2014ko abenduaren 18an emandako erabakiaren bidez, prozedura elektronikoa ezarri zen unibertsitateko irakasle-ikertzaileen baimenen izapideetarako, eta prozedura hori egoitza elektronikoko katalogoan sartu zen.

Orain, egoitza migratu egin behar da espedienteen izapide elektronikorako plataforma berria jartzeko, eta, beraz, baimenetako prozedura lekuz aldatu beharra dago irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordearen web atarira. Irakasle-ikertzaileen Zerbitzua aldaketa horren alde agertu da.

Informatikako aplikazioak ez dauka aldaketarik funtzionamenduan, eta, beraz, irakasle-ikertzaileek orain artean bezala erabili behar dute: aldaketa bakarra da komunikazioak web Atariaren bidez egingo direla egoitza elektronikoen bidez egin beharrean.

Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordearen Web Atariaren bidez egin ahal izango dute beren eskariaren jarraipena, eta, uneoro jakin ahal izango dute zein egoeratan dagoen izapidea.

Aipatutako guztia kontuan hartuta, honako hau

RESOLUCIÓN DEL SECRETARIO GENERAL DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA DE FECHA 24 DE OCTUBRE DE 2019, POR LA QUE SE TRASLADA DE FORMA TRANSITORIA EL PROCEDIMIENTO DE LICENCIAS Y PERMISOS DEL PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR DE LA SEDE ELECTRÓNICA AL PORTAL WEB DEL VICERRECTORADO DE PDI.

Por Resolución, de 18 de diciembre de 2014, del Secretario General de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, se implantó el procedimiento electrónico para la tramitación de varias licencias y permisos del personal docente investigador de la universidad y se incorporó al catálogo de procedimientos de la sede electrónica.

Debido a la migración de la sede y la implementación de la nueva plataforma para la tramitación electrónica de expedientes, resulta necesario trasladar el procedimiento de licencias y permisos de forma transitoria al Portal Web del Vicerrectorado de PDI. El Servicio de Personal Docente e Investigador ha emitido parecer favorable al respecto.

La aplicación informática a emplear no incorpora ninguna modificación que afecte a su funcionamiento y, por tanto, el personal de PDI deberá utilizarla como hasta ahora, con la salvedad de que las comunicaciones se realizarán a través del portal web y no estarán en la sede electrónica.

El PDI solicitante podrá hacer un seguimiento de su solicitud y conocer, en cualquier momento, el estado de tramitación de la misma a través del Portal Web del Vicerrectorado de PDI.

Por lo anterior,



ERABAKI DUT

LEHENENGOA.- Irakasle-ikertzaileen baimenen prozedura Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordearen Web Atarira aldatzea aldi baterako. Gune horretara unibertsitatearen web gunearen bidez sar daitezke (www.ehu.eus) edo egoitza elektronikoko katalogoko loturaren bidez (egoitza.ehu.eus). Azken kasu horretan, loturarako baino ez da izango egoitza: ez du egoitzak berak dituen erabileretarako balioko, eta prozeduran sartzean, egoitzatik irteten ari dela adieraziko dio aplikazioak erabiltzaileari.

BIGARRENA.- Erabaki honek UPV/EHUko irakasle-ikertzaile guztiei eragiten die, eta, hortaz, guztiek egin beharko dituzte baimenentarako izapideak Web Atariaren bidez, 2019ko urriaren 29tik aurrera.

Leioa, 2019ko urriaren 24an

RESUELVO

PRIMERO.- Trasladar el procedimiento de licencias y permisos del personal docente e investigador, de forma transitoria, al portal web del Vicerrectorado de PDI al que se podrá acceder desde la página web de la universidad ww.ehu.eus o a través de un enlace en el catálogo de procedimientos de la sede electrónica egoitza.ehu.eus. En este caso, la sede funcionará sólo como punto de acceso sin carácter de sede y, al efecto, se recibirá un aviso de que se está abandonando la misma al acceder al procedimiento.

SEGUNDO.- La tramitación de licencias y permisos a través del portal web será de aplicación a todo el personal docente e investigador que preste servicios en la UPV/EHU a partir del 29 de octubre de 2019

En Leioa, 24 de octubre de 2019

Pedro María Iriondo Bengoa
UPV/EHUko Idazkari nagusia/Secretario General de la UPV/EHU